



ILUSIOA ZABALTZEN  
DUTEN IPUINAK

[bibotecainfantil.fundaciononce.es](http://bibotecainfantil.fundaciononce.es)




1



REGINA  
SUKALDEKO ERREGINA

2



3

## GOR-ITSUTASUNARI BURUZ

Gor-itsuak zuk bezala **ENTZUN ETA IKUSTEN** ez duten pertsonak dira, modu ezberdin batean egiten dute.

Erraz antzeman ditzakezu, identifikatzeko **MAKIL GORRIA ETA ZURIA** erabiltzen baitute. Baina, ez pentsa, guztiak ez dira Athleticekoak!

Nahiz eta hori iruditu, **GOR-ITSUTASUNA** ez dute osatzen bi desgaitasunek; desgaitasun bakarra da, berezitasun propioekin.

Batzuk gabezia honekin jaiotzen dira. Beste batzuk, **PIXKANAKA-PIXKANAKA** galtzen doaz zentzumen bi hauekiko bat. Kasu bietan, ezaugarri komuna komunikatzerako orduan daukaten zailtasuna da.

Horregatik, **mbifantekani**, bat behar dute hori egiteko. Eskuen bitartez, bitartekariak bere inguruan gertatzen den guztia transmititzen die, lagundu eta aholkuak ematen dizkie eta horrela, hauteman ezin dituzten sentsazioak hobeto identifikatu ahal dituzte. Regina ume gor-itsuak da eta komunikatzeko zailtasunak izan arren, bere inguruan mundu zoragarria sortu du.

**Ézagutu nahi duzu?**

4

DinA4 edo DinA3 neurria duen orri batean inprimitu ezazu.  
Kolorea eman eta lerro jarraitik moztu. Lerro etenetik doblatu.

Kaixo adiskideak, ni naiz Regina,  
sukaldeko erregina!!!

## Ezaguner Horrela Deitzen Naute.

Nahi al duzue jakin zergatik?

Galiziako baserri batean bizi  
naiz, nire gurasoekin, eta  
bertan behitegi bat  
**DAUKAGU.**



Horrelako leku batean bizitzea estimulu  
bikaina da, **bizitzaz** beteta  
dagoelako. Kontua da nire ikusmena eta  
entzumena ahultzen joan direla.

**NIRE GAINONTZEKO ZENTZUMENAK,**  
ostera, bizkortzen joan dira.

**usaimena, dastamena eta ukimena.**

5

Inoiz *pen*tsatu  
duzue mundua **USAINDU** (ㄷ)

**DASTATU**

eta

**SENTITZEN**

**DELA?**





Nire ikusmena itzali baino lehen,  
 lasai asko egiten nuen korrika  
**BASERRITIK.**

Horregatik txoko **guztia**  
**gogoratzen** ditut,  
 ikusten ez ditudan arren.

Nire inguruan **daoen guztia**  
 aprobe txatu egiten dut  
**ikasteko**, munduarekin lotuta nago:  
**IHINTZA,**  
**LOREAK,**  
**barraskiloen lirdinga,**  
**EHRIA...**



Esate baterako, amak esekitzen dituen

**IZAREN USAINAK**

hegoak banitu

**BEZALA SENTIARAZTEN NAU.**

Haien antean salto egiten dut,  
haizeak nire masailak laztantzen dituen  
**BITARTEAN.**



9

10

DinA4 edo DinA3 neurria duen orri batean inprimatu ezazu.  
Kolorea eman eta lerro jarraitik moztu. Lerro etenetik doblatu.



Beste

## SentSazio

bitxi bat aitaren

### eskalapoiak

ukitzea da,

lokatzez eta behien gorotzez

beteta daudenean.

TROLL BATEN MUKIA  
DEIA IMAJINATZEN DUT



11

Komunikazioa oso beharrezkoa da.

Jende gehienak **hitzak**

erabiltzen ditu.

Nik keinu-hizkuntza eta

ukipen-sistema alfabetikoa

(hau da, esan nahi dudana nire eskuekin  
letreiatzen noa).

erabiltzen dut. Agostiño da nire bitartekaria eta

bera izan zen niri eta nire **FAMILIA OSOARI**,

noski, irakatsi ziguna.

PBaina horrez gain, oso sortzailea naizenez,  
sukaldea ere erabiltzen dut aditzera emateko.

Horregatik deitzen didate **“SUKALDEKO  
ERREGINA”**.

12

**ERREGINA”**.

Genoveva, **NIRE AMONA**

sukaldaria zen eta usain,

testura,  
eta zaporeak  
irakatsi dizkit.

Hain da dibertigarria

**IRINA**

barazki

edo oliarekin

nahasian  
ibiltzea.



13

Ezegonkor sentitzen naizenean, **AMONARI**  
laguntza eskatzen diot eta sukaldean sartzen naiz  
"salda galiziarra" prestatzeko.

**ZOPIONTSU SENTITZEN** naizenean

"**SANTIAGOKO tarta**" egiten dut.



14


DinA4 edo DinA3 neurria duen orri batean inprimitu ezazu.  
Kolorea eman eta lerro jarraitik moztu. Lerro etenetik doblatu.

Eta norbaiti maite  
dudana esan behar

**diodanean,**

olagarro on bat  
prestatzen dut

**GALICIA ERABA**



15

Janaria prestatzeko

HANDIA EDUKI BEHAR DA, TALENTU PIXKA BAT, MUNDUKO MAITASUN  
GUZTIA JARRI ETA AHALEGINTZEKO GOGO HANDIAK IZAN.

Amama "Genok" esaten zuen:


*"egizu lana eta izango duzu jana"*



16

DinA4 edo DinA3 neurria duen orri batean inprimitu ezazu.  
Kolorea eman eta lerro jarraitik moztu. Lerro etenetik doblatu.





17

Horregatik ahaleginak egiten ditut errezetak ikasten jarraitzeko eta nire **blogean idazteko**.

Badakizu?

*Braille sistemara moldaturiko ordenagailu bat daukat.*

Egunen batean gastronomia munduan

erreferentzia izango naiz. **GUSTU**

**ABENTURAZALEA,**

dudanez, munduan zehar ibiliko naiz, zapore

berrien bila, nire jarraitzaileekin **Konpartitzeko**.

**Bazenekiten Australian  
krokodilo-hanburgesak  
jaten dituztela?**

amaiera